

Donostian, 2018ko urtarrilaren 17an

IDAZKARI NAGUSIARI

ALOKAIRUKO ETXEBIZITZAREN GAINEKO KONTROL MOZIOA

Irabazi Donostia taldearen bozeramaile Amaia Martin naizen honek, Udalbatzaren Araudi Organikoaren 98. artikulua oinarri, KONTROL MOZIO hau aurkezten dut, Lurralde Garapen eta Planifikazio Batzordean, abenduan, bideratutako interpelazioaren ondorioz.

JUSTIFIKAZIOA

Joan den abenduan Donostiako Udaleko Hirigintzako zinegotzi ordezkari Ramos jaunari interpelazioa egin genion, udal gobernuak etxebizitzak eskuratzea sustatzeko egiten duenaz, batez ere alokairukoa, etxebizitza bat erosteko eta alokatzeko Donostiak prezio garestienak dituen hiri bat delako.

Ramos jaunak batzorde horretan emandako erantzunek alde batera utzi zuten tokiko Gobernuak etxebizitza arloan duen erantzukizuna, Eusko Jaurlaritzari eta merkatu pribatuari leporatuta, saihestu eginda, esaterako, ondasun higiezinaren gaineko zergan gainkarga ezartzeari, udal Gobernu honek % 50etatik % 35etara jaitsi baitzuen legealdiaren hasieran, gehienez ere % 150 ezartzeko ahal izan arren, udal talde honek 2015az geroztik eskatzen duen bezala. Gehienezko karga horrek horien mobilizazio handiagoa ekar lezake, eta urteko 1,5 milioi eurotik gorako diru sarrera gehiago, txosten teknikoaren arabera. Etxebizitza politiketarako erabil litezkeen diru sarrerok.

Era berean, alokairuaren prezioa arautzen saiatzeko neurriei buruzko galderari dagokionez, zinegotzi ordezkariak alokairuaren prezioa ezin zela arautu besterik ez zuen esan, eta beste hiri batzuetako esperientziak eremuka edo auzoka alokairu gomendagarriak argitaratzera mugatzen zirela. Hala ere, argitalpen hori alokairuko etxebizitza bat bilatzen duten pertsona askoren erreferentzia izan daiteke, eskaintzen dituzten prezioak erreferentziazkoetara hurbiltzen diren ala ez jakiteko, eta horrek ekar

lezake jabeek errenta astronomikorik ez eskatzea, bai eta etxebizitzak helburu sozial ez-espekulatiboa bete behar duela konturaraztea ere.

Era berean, gogoratu behar da ekainaren 18ko 3/2015 Legeak, etxebizitzari buruzkoak, etxebizitzaren helburu soziala ezartzen duela. Hori dela eta, eskumena duten administrazio guztiek helburu hori betetzeko beharrezkoak diren ekimenak abian jarri behar dituzte, etxebizitza bat eskuratzea ezinbestekoa baita bizitza duina izateko.

Beraz, uste dugu udal Gobernuak ez duela egiten eskura duen guztia Donostiako herritarren arazo nagusietako bat konpontzeko; horregatik, honako hau aurkezten dugu

KONTROL MOZIOA

1. Donostiako Udalbatzak udal Gobernuari hertsatuki eskatzen dio, hiru hilabeteko epean, Donostiako auzoen araberako alokairu prezioen indize bat ezarri eta argitaratzeko, merkatu pribatuan espekulazioa geldiarazteko asmoz.
2. Donostiako Udalbatzak udal Gobernuari hertsatuki eskatzen dio Donostiako auzoen araberako alokairu prezioen erreferentzia indizea erabiltzeko, alokairuaren prezioak neurrikoagoak egiten eta arautzeko bide fiskalak aztertzeko oinarri gisa.

Sinatua: Amaia Martin Garin,
Irabazi Donostia udal taldearen bozeramailea.